


Eskubaloia

Helburua, kanporaketa bideratzea

Bidasoak Polonian jokatu du gaur, Errekopako final-laurdenetako joanekoan



Nenad Perunicic aste honetan itzuli da taldera. Bere golak ezinbestekoak izango ditu gaur Bidasoak.

MANU MUJICA

Elgorriaga Bidasoak kanporaketa bideratuta uztea du helburu gaur Petrochemia Plock taldearen aurka jokatu duen Errekopako final-laurdenetako joanean (17:15). Talde poloniarrek zerrendaburu bat gainditu du hona heldu ahal izateko, baina hala ere ez dirudi Irungo zazpikoari arazo gehiegi sortzeko modukoa denik.

Pello Aiestaran / Donostia

BEHIN Errekopako final-laurdenetara helduta, argi dago aurkari errazik ez dela geratzen. Denek ere bide bera egin behar izan dute, eta horrek gutxienez errespetatua izateko balioa ematen du. Baina hala ere, badira maila desberdinak, badira oso aurrera egiteko hautagaiak direnak, eta beren partaidetza amaitzeko hautagaiak direnak. Kasu honetan, Elgorriaga Bidasoak aurrenekoen artean sartuko litzateke, eta Petrochemia Plock bigarrenen artean. Teorian behintzat, bien artean alde handi samarra dago.

Petrochemia Plock taldeak Danimarkako Skanderborg gainditu zuen final-zortzirenetan. Danimarkan 31-26 galdu ondoren, etxean 25-20 irabazi zuen Petrochemiak, eta kanpoan gol gehiago sartzeagatik lortu zuten kanporaketa honetarako txartela. Hiru jokalarik internazional ditu talde poloniarrek (Artur Goral atezaina eta Artur Niedzielski eta Marek Witkowski jokalariek). Horrekin batera, junior mailako beste bi internazional ere baditu (Konrad Tokarski eta Bartosz Wuszter). Baina horrek ez du askorik esan nahi. Poloniako eskubaloiak ez du duela urte batzuetako maila, eta aipatu

jokalariek ezin dira izartzat hartu. Gainera, aipatu beharra dago Bidasoak hiru aldiz jokatu duela Europan Poloniako ordezkarien aurka. Hiruretan nagusitu egin da.

Petrochemia Plock taldeak egiten duen jokoari dagokionez, oso sendo agertu ohi da defentsan (5-1 defentsa egiten du normalean). Gogortasun pixka bat ere erabiltzen dute, beraz gaur arbitroen lanak zerikusia izan dezake. Erasoan, lehen lerroko jokalariek hartzen dute erantzukizun guztia. Bigarren lerrokoak jokoan oso gutxi sartzen dira.

Bidasoak, Cangasen aurkako garaipenak ematen duen moralarekin • Elgorriaga Bidasoako partaideak moral izugarriarekin joan dira Poloniara. Batez ere Cangasen aurka joko ona egin zutelako, baina baita ere behingoz behar bezala lanean hasteko modua dutelako. Aspaldian ez zeuden jokalarik guztiak Juantxo Villarrealen aginduetara, eta horrek ere animo berriak sortzen ditu dudarik gabe. Denboraldia amaitzeko falta diren bi hilabeteotan, Errekopa da Irungoen helburu nagusia, Koparekin batera. Eta lehen helburuari heltzeko, gaur emaitza on bat lortu eta kanporaketa bideratuta

Corteblanco, Norwegian

CORTEBLANCO BIDEBIETA talde donostiarrak Norvegiako Larvik izango du aurkari gaur, Errekopako final-laurdenetako joanean. Javier Iriartek zuzentzen dituen neskek herenegun joan ziren hara, eta emaitza on batekin bueltatzeko itxaropenarekin daude. Lana ez da erraza izango, Larvik Europako talde onentsuenetakoa baita. Gainera, etxean asko hobetzen du bere maila. Aipatzekoa da denboraldi honetan ez duela galdu etxean.

Neurketa honetarako, jokalarik guztiak ditu prest Javier Iriartek. Martin Calero, Sevillano, Ugartemendia, Eizagirre eta Lopez Espainiako selekzioarekin kontzentratuta egon dira Madrilen, baina berriro ere Javier

Iriarte entrenatzailearen aginduetara daude. Tekniko donostiarrak Larvik jokalariek duten teknika nabarmendu du. «Maila handiko taldea da, eta banaka ere jokalariek teknika bikaina daukate. Horregatik, banakako lehiari ondo ateratzeko modua aurkitzen dute, eta kontu handia izan beharko dugu gai horrekin».

Corteblancoko entrenatzailearentzat, partidu honek aurreko kanporaketan Saint Gallenen jokatuak baino ilusio gehiago eragiten dio, «inor ez baita denboraldi honetan han irabazteko gai izan. Ederra da horrelako kanporaketa bat jokatu ahal izatea, eta ezin gara gertatu daitekeenaren beldur izan».

Lagun Arok eta Barakaldok puntu premiarekin jokatu dute gaur Iruñean

■ Bai nafarrak bai bizkaitarrak, sailkapeneko azken tokietatik atera ezinik dabilta

P. A. / Donostia

PUNTU PREMIA larriarekin jokatu dute gaur, Iruñeko Arrosadia kiroldegian, Lagun Aro San Antonio eta Barakaldo-UPV taldeek (18.30). Euskal derbira oso egoera larrian heldu dira bai nafarrak bai bizkaitarrak, Liga amaitzeko gero eta gutxiago falta delako eta sailkapeneko zuloatik atera ezinik jarraitzen dutelako.

Batez ere, etxeko taldearentzat da garrantzitsua gaurko partidua. Joan den asteburuan izugarriko jipoia jaso zuten Zupo Ekisoainen mutilek Galdarren, Cadaguaren kontra (36-16), eta sailkapenean hamahirugarren tokian ageri da. Gaur, zaletuen aurrean, batetik itxura hobetu nahiko du, eta garaipenaren bi puntuekin etorkizunari lasaitasun gehixeagorekin begiratu. Ez da erraza izango ordea. Antoniarrek jokalarik onak dituzte, baina denboraldian zehar ez dute espero zen jokoa egiterik lortu, partidu konkretu batzuetan izan ezik.

Barakaldo-UPV ere, ez dago egoera hobean. Bizkaitarrak azkenaurreko postuan daude, bakarrik Valenciaren aurretik, eta kostata lortuko dute hortik ateratzea. Txanpi Riveroren gizonak ahaleginak egiten dituzte, baina gaur egun partiduak aurrera ateratzeko ezintasuna erakusten dute. Joan den jardunaldian jasotako jipoiak (18-44) ez du ezertarako balio, aurkaria Barcelona zelako. Beharbada, balio gehiago dauka lehen itzulian bi talde hauen artean izandako emaitzak: Barakaldo garaile, gol bakar batez. Parekotasun handia dago bien artean, gaurko printzipioz Lagun Aro San Antonio faborito izan daitekeen arren. Ikusiko dugu. X



MUGARRI

Araba etorbidea z/g
Tel.: 79 07 44 - 79 07 54 - ARRASATE

PROBE 24 V.....	Km. 0
SIERRA COSWORT.....	Km. 0
MONDEO CL.....	2 urte
PROBE 24 V.....	3 urte
TRANSIT FT 190.....	5 urte
MODEO V6.....	Km. 0
FIESTA XR2.....	SS-AD
FIESTA Ghia.....	BI-AY
OPEL VECTRA.....	SS-AH
OPEL ASTRA GSI.....	SS-AP
ESCORT Diesel.....	SS-AJ

IKUSKATUAK ETA GARANTIZATUAK. ERRAZTASUNA ORDAINTEZKO